

BALANTZE SOZIALA

2024

AURKIBIDEA



01

SARRERA

02

KONTSEILU ERREKTOREKO
LEHENDAKARIAREN
GUTUNA

03

JARDUERA EREDUA

04

MISIOA, BISIOA
ETA BALOREAK

05

ANTOLAKETA ETA
EGITURA

06

PRESENTZIA
GEOGRAFIKOA

07

JARDUERA
EREMUAK

08

HELBURU
ESTRATEGIKOA

09

ARRISKUEN
KUDEAKETA

10

JASANGARRITASUNA

11

BALIO ERANTSIAREN
EGOERA

01

SARRERA

Agintzari S.Coop.-en 2024. urteko ekitaldi ekonomikoaren balantze sozialean kooperatibaren eta haren ingurunearen garapen jasangarriari egiten dion ekarpena balioesten saiatzen da. Horretarako, Nazio Batuek (NBE 2015) bultzatutako mugimenduarekin bat egitea adostu da, 2030 agenda eta garapen jasangarrirako 17 helburuak zehaztuz.

Iraunkortasunari buruzko txostenak pizgarri indartsuak dira GJHen ekarpenei buruzko barne-elkarrizketarako eta erabaki iraunkorrak hartzeko. Balantze Sozial honen bidez, hiru gai hauei buruzko adierazle garrantzitsuak aurkeztuko dira: ingurugiroari buruzkoak, sozialak eta gobernantzari buruzkoak, baita GIH 17+1aren garapena.

Txosten hau garatzeko behar izan den informazioa, erronka eta faktore erabakigarria izan da kooperatibaren jarraipenean, lehiakortasuna eta errentagarritasuna optimizatzeko aukera emateaz gain (kostuen aurrezpena, ospea hobetzea, giza baliabideak hobeto zuzentzea, modu objektiboago eta eraginkorragoan jardun ahal izateko, kultura motibatzailea, inklusiboa eta jasangarria, komunikazioa hobetzea etab.)

Horrez gain, Balio Erantsiaren Egoera ere gehitu da; emaitzen araberako finantza txostena. Hemen kooperatibak sortutako balioa erakusten da; eta, daukagun barne eta kanpo ekarpen ekonomikoa.

02

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIAREN GUTUNA

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIAREN GUTUNA

Agintzari osatzen dugun pertsona guztioi:

Urterolez, garrantzitsua iruditzen zaigu balantze soziala egitea, gure kooperatibaren egoera partekatzeko eta ingurumenean gizartean eta gobernu kooperatiboan sortzen duen inpaktua ikusarazteko. Azterketa horrek, kooperatibaren balioekin bat eginik, urtez urte laguntzen digu alderdi horietan aurrera egiteko hobekuntza-proposamenak egiten.

Urteko kontu finantzarioen osagarri gisa ulertzen dugu txosten hau, aurretik aipatutako hiru gai horietan arreta jarriz eta Agintzarik duen konpromisu soziala adieraziz.

2024an erronka desberdinak bizi izan ditugu maila sozial, korporatibo eta laboralean. Bide horretan, Erroak barne-prozesu parte-hartzailearen emaitzetan oinarritu gara (800 langileren parte hartzearekin). Sentsibiltate eta jarrera konstruktiboarekin aurre egin zaie langileen partetik erronka guztiei, hau aintzat hartzeko arrazoia izanik.

Konpromiso kolektiboa eta taldearen giza kalitatea funtsezkoak dira kooperatibak hirugarren sektorean duen erreferentzia-posizioari eusteko eta hura indartzeko.

Eskerrik asko zuen konfiantzagatik.

Sarai Navarro Itxaso
Agintzari, S. Coop.eko lehendakaria



03

JARDUERA EREDUA

Agintzari, S. Coop herri-onurako eta gizarte ekimenerako den kooperatiba bat da. 1991. urtean sortu zen, 1983. urtean sortutako fundazio baten eboluzioaren ondorioz. 40 urtetik gorako ibilbidea dauka esku hartze sozialean; 598 langile ditu, horietatik 237 bazkideak izanik. Aipatzekoa da langileen %82,7 emakumea dela.

- **Forma juridikoa:** Gizarte ekimenerako kooperatiba
- **Aitortua:** Herri-onurako entitatea (2000) eta gizarte ekimenerako (2014)
- **2024ko fakturazioa:** 20.048.066,27€
- **Zerbitzuen kopurua:** 80 zerbitzu inguru

JARDUERA EREDUAREN DESKRIBAPENA

GIZARTE EKIMENeko ETA HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

Agintzari, S. Coop. (aurrerantzean Agintzari) komunitatearen garapenean inplikaturako kooperatiba sozial bat da. Esku-hartze sozialaren eremuan jarduten du, eta proposamen berritzaileak martxan jartzen eta kalitatezko zerbitzuak kudeatzen lan egiten du, egoera zailean dauden pertsona eta kolektiboen behar sozialak gainditzera bideratuta.

KONPROMISO SOZIALA DUEN ERAKUNDEA

Esku-hartze sozialaren eremuan, 1977an kokatzen da Agintzari kolektiboaren presentzia. Agintzari Elkarteak 1983an hartu zuen nortasun juridikoa, eta, orduetik, salaketa soziala, ikerketa eta arrisku egoeran eta babesik gabe dauden adingabe eta gazteei arreta emateko jarduera zabala egiten du. Etapa honetan, elkarteak hainbat etxe funtzional sustatzen eta kudeatzen ditu, eta esku-hartze komunitarioko taldeen bidez familia eta kale hezkuntzako gizarte eta hezkuntza programak garatzen ditu.

1991an, Sozietate Kooperatiboa sortu zen, eta gizarte-ekonomiaren eredu horretan gizarte- eta lan-esparruarekin bat zetorren gizarte-xedearekin, eta kudeaketa demokratikoa eta gizartearekiko konpromisoa ahalbidetzen zituen.

2000. urtean, ekainean, Gizarte Ekimeneko Kooperatibaren izaera hartu zuen, irabazi-asmorik ez zuena; 2000ko irailean, Onura Publikoko Erakunde izendatu zuten, eta 2014ko ekainean, Gizarte Intereseko Erakunde izendatu zuen Eusko Jurlaritzak.



FILOSOFIA

Gure kudeaketa filosofiak hiru oinarri ditu:

- Kooperatibako kide izateko eta lantokia baino zerbait gehiago sortzeko ilusioa.
- Erakunde gizatiarragoa izatea, kooperatiba osatzen duten pertsonen beharretan nahiz komunitatearen, erabiltzaileen eta bezeroen beharretan zentratua.
- Sektorean erreferenteak izatea eta zerbitzu sozialen garapenean parte hartzea.

Zutabe horietan oinarritzen dira gure antolakuntza-dinamika bideratzen duten kudeaketa-kontzeptuak:

- Pertsonen eta lantaldeen autonomia. Taldeek kudeaketan parte hartzea. Deszentralizazioaren kontzeptua garatzea: bezeroenganako, erabiltzailearenganako eta taldearenganako hurbiltasuna. Talde koordinazioan oinarritutako lidergo formulak bilatzea.
- Heterogeneotasuna onartzen duen eta barne-aniztasuna errespetatzen duen erakundea, bere errealitatearekin bat datorrena.

Agintzarik ordutegi, eskatzen diren kompetentzia, esku-hartze formatu eta abarren inguruan antolaketa behar espezifikoak dituzten zerbitzu eta programak kudeatzen ditu. Hori dela eta, beharrezkoa da aniztasun hori onartzea eta behar den tratamendu soziolaborala ematea:

- Kooperatiban sormen-guneak sortzea. “Egiten duten” eta “pentsatzen duten” pertsonen arteko binomioa hautsiz, bi ikuspegi hauen arteko ko-erakuntza posible eginez.
- Lidergo partekatua: Lidergoa beste pertsona batzuekin batera eraikitzea, prozesuen gaineko erantzukizunaren eta helburu partekatuaren ikuspegitik.

TRANSPARENTZIA

Kooperatibaren gardentasuna demostratzeko ondorengo kontrolak egiten dira Agintzarin:

- Irabazteko asmorik gabeko erakundeen parametroen betetze-mailari buruzko Gizarte Auditoria, REAS-ek egina.
- Urteko kontuen auditoria BNFIX auditoreek egina.
- Adinez txikikoen zentruen auditoria espezifikoak IZE auditoreek egina.
- Berdintasun plana Emakundek ziurtatuta.
- Compliance plana.

Agintzari ondorengo erregistroetan inskribatuta dago:



Eusko Jaurlaritza

- Euskadiko kooperatiben erregistroa
- Kontratisten Erregistroa Euskal Autonomia Erkidegoan
- Hirugarren Sektoreko Erakundeen Errolda
- Boluntarioen errolda

Arabako Foru Aldundia

- Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa

Nafarroako Gobernua

- Nafarroako Gobernuko Lizitatzailen Borondatezko Erregistroa

Bizkaiko Foru Aldundia

- Bizkaiko Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa

Sepe

- Estatuko Prestakuntz Erakundeen Erregistroa, Prestakuntza Espezialitateen Katalogoan sartuta ez dagoen prestakuntza eman ahal izateko

Espainiako Gobernua

- Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala (ROLECE).

REAS

- REAS Euskadin erregistroa

La Riojako Gobernua

- Errioxako Gobernuak Gizarte Zerbitzuen eta Gobernantza Publikoaren Saileko Gizarte Zerbitzuen Entitate, Zentro eta Zerbitzuen Erregistroa.

Castilla La Manchako Gobernua

- Gaztela-Mantxako Gizarte Zerbitzuen Erregistroa

Generalitat Valenciana

- Valentziako Erkidegoko Jardueren eta Gizarte Ekintzako Zerbitzu eta Zentroen Titularren Erregistro Orokorra

Generalitat de Catalunya

- Erregistroa III. kategorian: Gobernu Kanpoko Erakundea.

Madrileko Komunitatea

- Madrileko komunitateko zerbitzu sozialen erregistroa

DFG

- Interes taldeko erregistroa.

Horien aurrean oinarrizko informazio guztia aurkezten dugu (estatutuak, sozietatearen helbidea, ogasunaren eta gizarte-segurantzaren ziurtagiriak, etab.).

Gure web orria da kanpo-komunikaziorako bide nagusia. Bertan, gure jarduerari buruzko dokumentazio eta informazio garrantzitsuena eskuragarri dago.

04

MISIOA, BISIOA ETA BALOREAK

MISIOA, BISIOA ETA BALOREAK

Gure misioaren gakoak

AGINTZARI, gizarte enpresa den aldetik, gizartearekin konprometitua dagoen kooperatiba bat da, gizarte beharrei heltzeko eta gizarte balioa sortzeko.

Gure misioa da gizarte-lankidetzan konprometitutako eta inplikaturako pertsonengan oinarritutako proiektu bat garatzea; betiere, talde-lanean arituz, pertsonen, bezeroen, kolaboratzaileen eta gure inguruaren asebetetzea etengabe bilatuz eta egoera zailean dauden pertsona eta kolektiboen bizikaltatea hobetzea ahalbidetuz. Horrela, gizarte bidezkoago, solidarioago eta kohesionatuago bat sustatzen lagunduz.

Gure proiektu kooperatiboa pertsonetan oinarritzen da; izan ere, gure erakundearen oinarria autokudeaketa, parte-hartzea, esperientzia eta lidergo partekatua da. Bikaintasuna lortu nahi duten pertsonen artean, gure prestazioen hartzaileak, entitate bezero eta laguntzaileak eta gure jarduera garatzen dugun komunitatea etengabe asebetez.



BALORE ETA PRINTZPIOAK

Gure misio eta bisioa ondorengo baloreetan oinarritzen da jokatzeko daukagun moduarekiko:

✓ **ERANTZUKIZUN SOZIALA**

Funtsezko balio nagusitzat gizarte-erantzukizuna hartzea, hau da, gizarte-premiak dituzten pertsonak sustatzeko konpromisoa eta inplikazioa, eta bezeroen, bazkideen eta laguntzaileen gogobetetzea lortzea.

✓ **LANKIDETZA**

Erakunde publikoekin eta sektoreko gizarte-eragileekin lankidetzan aritzeko apustu irmoa egin dugu.

✓ **BALORE ETIKOAK**

Konpromisoa, erantzukidetasuna, ekitatea eta elkartasuna, zintotasuna, errespetua eta kode etiko profesionalen berezko balio etikoak onartzea, bitarteko helburu gisa, bai gure barneko jardueretan, bai kanpokoetan.

✓ **EMAKUME ETA GIZONEZKOEN BERDINTASUNA**

Emakumeen eta gizonezkoen berdintasun-printzipioa onartzea eta horren aldeko konpromisoa hartzea, betiere sexuagatiko bereizkeria oro debekatuz.

✓ **GARDENTASUNA**

Kudeaketan, informazioan eta komunikazioan gardentasuna beharrezko eskakizun gisa ulertzea, bai barruan, bai kanpoan.

✓ **KONPETENTZIAK**

Kooperatibaren berezko oinarrizko gaitasunak, antolakuntzakoak eta banakakoak proaktiboki sustatzea eta integratzea, betiere ahalik eta gaitasun profesional handiena lortzeko.

✓ **INTERKOOPERAZIOA**

Aurreko balio guztiak bizirik jarrai dezaketela onartzea, zabaltzen diren heinean eta, ondorioz, elkarlankidetzan elkartasun-espirtua aplikatzean, kooperatiba-mugimenduaren berezko balioetan oinarritutako eta Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak definitutako ekarpen bereizgarri gisa.

✓ **GIZARTE-, SOZIJETATE-, ETA EKONOMIA- ERRENTAGARRITASUNA**

Bereziki, errentagarritasun ekonomikoa, sozietarioa eta soziala lortzea, hau da, jardueraren bidez sortutako onura ekonomikoak berrinbertitzea, pertsonak eta enplegua sustatuz.

PERTSONETAN OINARRITUTAKO PROIEKTU KOOPERATIBOA



Agintzari gizarte ekimeneko kooperatiba bat da, gizarte eraldaketarekin konpromiso sendoa daukana, behar komunitarioei modu integralean helduz eta balio soziala sistematikoki sortuz. Gure erakundeak lankidetzaproiektu bat garatzen du, gizarte lankidetzarekin konprometitutako profesionalen parte-hartze aktiboan oinarrituta. Profesional horiek elkarlanean aritzen dira zerbitzuaren bikaintasuna etengabe lortzeko.

Gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen eta kolektiboen bizi-kalitatea nabarmen hobetzera bideratzen dugu gure zeregina, eta, aldi berean, gizarte-ongizateko eredu publikoa indartzen eta legitimatzen laguntzen dugu. Gure jardueren bidez, gizarte bidezkoago, solidarioago eta kohesionatuago bat eraikitzea sustatzen dugu, gizarte-ekonomiaren eta garapen komunitario jasangarriaren printzipioetan oinarrituta.

ZELAN EGITEN DUGU LAN?

Agintzarik bere antolaketa eredua, parte hartze demokratiko eta lidergo partekatuaren printzipio kooperatiboetan oinarritzen du, elkarlaneko ekosistema bat sortuz, non kooperatiba osatzen duten pertsona guztien esperientzia eta konpetentziek bat egiten duten. Lan-filosofia hori bikaintasuna etengabe bilatzera bideratuta dago, tartean dauden eragile guztien gogobetetze integralaren bidez: kooperatibistak, zerbitzu eta programen hartzaileak, erakunde laguntzaileak eta oro har, komunitatea.

Gure ikuspegiak onartzen du esku-hartze sozialaren kalitatea, funtsean, eragile horien guztien artean sinergiak sortzeko ahalmenaren mende dagoela, eta etengabeko hobekuntzako zirkulu bertutetsua sortzen duela, komunitate osoaren onerako.

ESKU HARTZEKO PRINTZIPIO METODOLOGIKOAK

Agintzariren lan metodologia gure jarduera guztiak bideratzen dituzten funtsezko lau printzipioren inguruan egituratzen da:

- **Lurralde hurbilketa:** Esku hartzeko daukagun filosofian, pertsonok beren ingurune hurbilarekin lotzeak duen garrantzi estrategikoa aitortzen eta bultzatzen du, eta lurraldea ez da soilik espazio fisiko gisa ulertzen, baizik eta harreman sozial, kultural eta ekonomikoen matrize gisa, garapen pertsonal eta komunitarioko aukerak zehazten dituena.
- **Baliabide existentzialen babesa:** Komunitate-sare naturalak indartzeko eta biziberritzeko estrategiak garatzen ditugu, lurralde bakoitzaren ahalmen endogenoa aitortuz, eta komunitatean dauden baliabideak eta gaitasunak sustatzeko lan eginez, mendekotasuna sortzen duten ikuspegi asistentzialistak sahiestuz.
- **Parte hartze soziala:** Era aktibo eta sistematikoa sustatzen dugu herritarren parte-hartzea gizartea eraldatzeko prozesuetan. Espazio eta mekanismoak eskaintzen ditugu, pertsonak eta taldeak beren garapenaren eta komunitatearen garapenaren protagonista bihur daitezzen.
- **Deszentralizazioa:** Erabiltzaileekiko eta lantaldeekiko hurbiltasun eraginkorra bermatzen dugu, hautemandako beharrei bizkor eta modu pertsonalizatuan erantzuteko.

05

ANTOLAKETA ETA EGITURA

ANTOLAKETA ETA EGITURA

Kooperatiba gisa, haren eraketa estatutuetan ezarrita dago, eta gobernu-organoak honako hauek dira: Bazkideen batzar nagusia eta kontseilu errektorea.

Batzar Nagusia gobernu-organo gorena da, eta eskumen hauek ditu:

- Gainerako organo sozialen kideak izendatzea eta kargutik kentzea (Kontseilu errektorea, bigilantzia kontseilua...)
- Kudeaketa sozialaren azterketa, urteko kontuen onarpena eta galdu-irabazien banaketa
- Estatutu sozialen aldaketak
- Barne araudiaren onarpena eta aldaketak
- Fusioa, banaketa, transformazioa eta sozietatea desegitea
- Estatutuen arabera kooperatibaren ekonomia-, antolamendu- eta funtzio-egituran funtsezko aldaketak eragingo dituen erabaki oro.

KARGUA	IZEN - ABIZENAK	NAN	AGINDUA
Lehendakaritza	Navarro Itxaso, Amaia Sarai	78941817K	2026
Lehendakariordetza	Zarate Lorenzo, Oiane	30607147N	2026
Idazkaria	Granado Barreira, Oscar	72315884C	2028
Bokala	Tejera Del Olmo, Blanca	22726483E	2028
Bokala	Diaz Nieto, Eduardo	72394640R	2028
Bokala	Zumaquero Moreno, Marina	45620548W	2026
Bokala	Delgado Iglesias, Ander	22757305R	2026



ZUZENDARI NAGUSIA

Mikel Gorostizaga

ZUZENDARIAK

Agintzariko Zuzendaritza Kontseilua

Jarduera-zuzendariak:

Zuzendaria: Ángel Sainz

Zuzendaria: Blanca Angulo

Zuzendaria: Itziar Etcheverry

Zuzendaria: Maite Calleja

Zuzendaria: Unai Zabala

Zuzendaria: Josu Gago

Zuzendaria: Janire Barcena

Zuzendaria: Leire Hernandez

Zeharkako zuzendariak:

Pertsonen zuzendaria: A. Solozabal

Finantza zuzendaria: R. Sáez

Garapen teknikoko zuzendaria: N. Moyano

06

PRESENTZIA GEOGRAFIKOA



Agintzarik Zabalduzekin batera, 2018ko ekainean, Bogan S.Coop sortu zuten, bigarren graduako kooperatiba bezala. 2024an ondorengo hiru kooperatibek osatzen dute:



Agintzari, S.Coop


Zabalduz, Koop. Elk

Hirube, S.Coop

Bogan S.Coop-en helburu soziala eta funtzioak ondorengo hauek dira: Bere baitan biltzen dituen kooperatiben xedea bultzatzea, sustatzea, koordinatzea,osatzea eta haren garapena bermatzea, zerbitzu teknikoak, aholkularitza, administrazioa, kontabilitatea, juridikoa, komertzialak eta bigarren mailako kooperatibaren eta haren kooperatiba bazkideen ordezkari ituzionaleko zerbitzuak eskainiz.

07

JARDUERA EREMUAK



HASIBERRIAK

- **Teknoadineko**
 - BBK Behari
 - BERTAN-Poctefa
 - Gipuzkoa (Hernani, Aita Menni, Zestoa,...)
 - Galdakao...
 - Laborategia
- **Aukerak Suspertzen**
- **Lehen Urratsak (Bizkaia, Gipuzkoa)**
 - LUR (Bilbao)
 - Bizikideak (Bilbao)
 - Trapezistak (EJ)
- **Alokabide:**
 - Bizkaia y Araba
 - Ortutxueta
 - Plan ZERO +
- **Basauri-CIM**
- **Hospital de día Osakidetza...**
- **Hitzune**
- **Plan Piloto Captación de Familias de Acogida (Bizkaia)**
- **Proyecto Acogimiento Familiar Especializado (AFE)**
 - Cataluña, Madrid, Navarra, Euskadi.
 - Junto con FICE y Resilis
 - Financiado:
 - Ministerio Derechos Sociales
 - Fondos Next Generation
 - 2022-2024

HARTZAILEAK

Kudeatzen ditugun titulartasun publikoko zerbitzuen hartzaile gehienak lehen edo bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak dira. Gizarte-zerbitzuen 12/2008 Legearen babespean mugatutako gizarte-zerbitzuen zorroak deskribatzen duenaren arabera, esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala behar duten haur, gazte, heldu eta familia baztertuekin, babesgabeekin edo mendekoekin esku hartzen dugu.

Era berean, harrera eta adopzioan arreta psikosoziala eta aholkularitza espezializatua behar duten eta Arlobi-Adoptiara jotzen duten pertsona, familia eta erakundeak ere, zerbitzu-eskaintzaren hartzaileak dira.

Eskolako eta familiako prebentzio-programak, berriz, hezkuntza-komunitate osoari, ikasleei eta familiei zuzenduta daude.

Halaber, kooperatibak aholkularitza- eta prestakuntza- proiektuak kudeatzen ditu gizarte-zerbitzuen sektoreko profesionalentzat.



GARAPEN KOMUNITARIOAREN ETA PARTE-HARTZE SOZIALAREN IKUSPEGIA

Agintzariren esku-hartze ereduak bere konpromiso komunitarioa materializatzen du, urtero 30.000 pertsona baino gehiagori zuzeneko arreta emanaz, egitura dinamiko komunitarioetan eragiteko banakako arreta gainditzen duen ikuspegi integrala garatuz.

Gure esku-hartzeak lau elementu bereizgarri ditu:

- **Lan sistemikoa:** Pertsonen hurbileko ingurunea eta haien laguntza naturaleko sareak modu integralean kontuan hartzen dituzten esku hartzeak garatzen ditugu, eta onartzen dugu banakako aldaketa-prozesuak berez lotuta daudela gizarte- eta komunitate- testuinguruaren eraldaketekin.
- **Ikuspegi prebentiboa:** Lehen eta bigarren mailako prebentziora bideratutako jarduerak lehenesten ditugu, problematika sozialen agerpenari aurrea hartuz edo fase goiztiarretan esku hartuz, kroniko bihur ez daitezen eta haien inpaktu pertsonala eta komunitarioa murrizteko.
- **Ikuspegi inklusiboa:** Arreta espezializatua eskaintzen diegu behar dutenei, pertsona bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz, eta gizarteratzeko integrazioa ahaztu gabe.
- **Berrikuntza metodologikoa:** Konpromiso etengabea dugu estrategien berrikuntzekin, baita errealitate sozial berrietara egokitzeko gaitasuna.

KONPROMISOA ONGIZATE SOZIALA LORTZEKO MODELO PUBLIKOAREKIN

Agintzarik Gizarte Ongizatearen eredu publikoa legitimatzeko eta indartzeko eragile aktibotzat aitortzen du bere burua, eskubide sozialen bermea sektore publikoaren erantzukizuna dela onartuz, sektore pribatuaren lankidetzaren estrategikoarekin integratu daitekeena eta integratu behar dena, bereziki hirugarren sektorearekin eta ekonomia sozialarekin.

Gure pozisionamendua erantzukidetasun-printzipioan oinarritzen da, uste baitugu gizarte-beharrei erantzuteko lurraldeko eragile guztien erantzun koordinatua behar dela, betiere sektore publikoan lidergoari eta erantzukizunari eutsiz.

Ikuspegi honek landiketza publiko-pribatuko eredu bat garatzera garamatza; osagarritasunean, gardentasunean eta interes orokorrerako orientazioan oinarrituta, gizarte-ongizateko sistema osoa indartzen lagunduz.



Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuen arloan, Agintzarik 2024an zehar 32 zerbitzu garatu ditu gizarte eta hezkuntza arloan, arlo psikosozialean esku hartzeko. Zerbitzu horiek babesgabetasun arriskuan daudenak, bazterketa arriskuan daudenak eta bulnerabilitate egoeran daudenak babesten ditu.

Zerbitzu horien lurralde estaldurak 25 udalerri eta mankomunitate hartzen ditu Bizkaian, horrela erabiltzaileei beren ingurune komunitarioetan hurbiltasuna eta irisgarritasuna bermatuz. Ondorengo udalerrietan egiten dugu lan: Bilbo (6 zerbitzu, auzo desberdinetan banatuta), Barakaldo (2 zerbitzu espezializatu), Portugalete, Leioa (2 zerbitzu, loteka), Lea Ibarra, Galdakao, Zierbena, Basauri (2 zerbitzu), Santurtzi (2 zerbitzu), Bermeo, Urduña (2 zerbitzu), Etxebarri, Mallabia, Zaratamo, Ermua eta Getxo. Era berean, Lea Artibaiko, Durangoko eta Busturialdeko mankomunitateekin egiten dugu lan, baita Arakaldo, Arrankudiaga, Zeberio eta Ugao Miraballes udalerrietan ere.

Horrez gain, Agintzarik 7 zerbitzu gehigarri kudeatzen ditu lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen arloan, horrela herritarren behar espezifikoak erantzuteko eta arreta emateko espektroa zabalduz. Zerbitzu horiek 6 udalerri eta mankomunitatetan garatzen dira, Bizkaitik Nafarroaraino.



Zerbitzu horien artean, hauek nabarmentzen dira: Zainduz (Zierbenan), Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren bidez kudeatzen den Gaueko Harrera Zerbitzua eta Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeentzako Gizarte eta Hezkuntza Laguntzako Programa Bilbon. Halaber, bestelako zerbitzu batzuk ere lantzen dira “Creciendo contigo” Iruñean, “Tejiendo Redes de Ayuda” Galdakaon, “Absentismo Escolar”-erako prebentzio eta kontrola, baita “Nagusilagun” Orozkon ere.

Bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen esparruan, 2024an 12 zerbitzu garatu ditugu, esku-hartzearen funtsezko hiru arlo hartzen dituztenak: haurren sexu-abusua, familia harrera eta adopzioa, adingabeentzako egoitza-zentroak eta informazio eta arreta-zerbitzuak.

Zerbitzu horiek guztiak Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin batera ematen dira. Besteak beste, honako zerbitzu hauek nabarmendu behar dira: Sexu abusu egoeretan esku hartzeko zerbitzua (SEIP), Familia harrerari laguntzeko programak (PAAFA eta EPAF), Adopzioari laguntzeko programa (PAAB), Familia Harreraren Programa Espezializatua (PAFE) eta familiei eta adingabeei arreta emateko programak eta zerbitzuak kudeatzeko (SAFAYA) Nafarroan.

Era berean, 2024an, babesik gabe dauden adingabeentzako hiru egoitza zentru kudeatu dira: Botiolako egoitza zentrua, Arabellako egoitza zentrua eta Igeldoko egoitza zentrua.

Eskaintza hau osatzeko, Zeuk Esan (haurrei eta nerabeei telefono bidezko arreta emateko zerbitzua), Satevi (indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzua) eta Esnatu (indarkeria matxistaren biktimei laguntza psikologikoa emateko) zerbitzuak ditugu.

Osasun-sistemaren esparruan, gizarte- eta hezkuntza- arloko esku-hartze funtzioak garatzen ditugu Osakidetzako Nahaste Mental Larria duten nerabeentzako Eguneko Ospitalean, eta arreta espezializatu ematen dugu haur eta gazteen osasun mentalean. Inmigrazioaren arloan, Eusko Jaurlaritzaren Trapezistak zerbitzua kudeatzen dugu, hirugarren sektoreko beste 25 erakunderekin batera, migratzaileei arreta integrala emateko.

Etxebizitza arloan bi zerbitzu lantzen ditugu: Zero Plus eta Alokabide, biak Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan kudeatzen dira.

Arlo hori osatzeko, prestakuntza- eta gainbegiratze- zerbitzuak eskaintzen dira, besteak beste, Mungialdeko Mankomunitateko gizarte-langileen kasuak gainbegiratzen dira, eta Eusko Jaurlaritzaren Prest Gara programaren zenbait lote ere bai.

Azkenik, 2024an beste 9 proiektu garatu dira hainbat esku-hartze esparrutan, diru laguntza publiko eta pribatuen bidez finantzatuak. Proiektu horiek lan-ildo bat osatzen dute, kontratu-zerbitzuen osagarri, eta aukera ematen dute sortzen ari diren gizarte-arazoei ekiteko modu berriak aztertzeke.

Proiektuen artean Aukerak Suspertzen bezalako zerbitzuak nabarmentzen dira, hirugarren sektoreko beste 25 erakunderekin batera garatutako hezkuntza-laguntza komunitarioko programa, Betirako proiektua, Eusko Jaurlaritzak eta BBK fundazioak finantzaturako zerbitzua, behar dutenei doluan laguntzeko programa, baita Gure Arteko eta Zeruertz proiektuak ere, Eusko Jaurlaritzak eta BBK fundazioak finantzatuta.

Europa mailan, Eduvicekin lankidetzan garatutako eta Europako Batzordeak finantzaturako Hedera proiektuan parte hartzen dugu, eta horrek aukera eman digu nazioarteko ikuspegi eta metodologia berriak aztertzeke. Nafarroan, Meneutika proiektua inplementatzen dugu Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, eta nerabeentzako erresilientzia eta mentalizazio arloko bi prebentzio-programa ere; gizarte-egoera zailean eta babesgabetasun arriskuan dauden gazteei zuzenduak, Iruñeako Udalak eta Nafarroako Gobernuak finantzatuak, hurrenez hurren.

Kooperatibak gizarte- eta hezkuntza- zerbitzuak, zerbitzu psikosozialak eta gizarte-zerbitzuen arloko aholkularitza- eta trebakuntza- zerbitzuak kudeatzen ditu.

Zerbitzu horien kudeaketa jarduera-lerroetan antolatzen da. Lerro horiek zerbitzuen ezaugarrien arabera multzokatzen dira, eta kasu batzuetan, garatzen diren lurraldearen arabera.

Eusku-hartze komunitarioko lerroak titulartasun publikoko gizarte- eta hezkuntza- zerbitzuak eta zerbitzu psikosozialak kudeatzen ditu, eta horiek gizarte-zerbitzuen zorroaren parte dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen babesean.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak indartzeko eta baliabide berezi gisa eraturako udal-baliabideak dira, 0 eta 18 urte bitarteko adingabeen eta beren familiei zuzendua, babesgabetasun arrisku arin zein moderatuan daudenentzat. Lerro honek eskola eta familia eremuko prebentzio programak ere kudeatzen ditu. Bigarren mailako arreta-zerbitzuari dagokionez, adingabeak babesteko zentroak, familia harreran eta adopzioan espezializatutako zerbitzuak eskaintzen ditugu.

Horrez gain, babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako gizarte informazioko zerbitzua dugu, baita sexu indarkeria biktima diren emakumeentzako ere.

Gizarte-zerbitzuen eremuan garatutako zerbitzuez gain, etxebizitza arloan ere esku hartzen du. Hain zuzen ere, arrisku egoeran dauden nerabeentzako laguntza zerbitzuen bidez.

2023an, Esnatu programa abiarazi zen, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzaturako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei laguntza psikologikoa emateko programa.

08

HELBURU ESTRATEGIKOA

HELBURU ESTRATEGIKOA

Agintzari, Gizarte Ekimeneko Kooperatiba den aldetik, komunitatearen garapenean inplikaturako gizarte erakunde gisa aitortzen da, proposamen berritzaileak martxan jartzen eta zailtasun egoeran dauden pertsona eta kolektiboaren behar sozialak gainditzera bideratutako kalitatezko zerbitzuen kudeaketan lan egiten du.

Hainbat komunitate eta herritan ematen dugu zerbitzua, izan ere, 30.000 pertsona baino gehiagora helduz. Pertsona horietako asko familia edo gizarte egoera ahulean edo zailean dauden biztanleak dira, eta beraz, oso garrantzitsua da baliabide komunitarioetara hurbiltzea eta haiekin harremanetan jartzea. Garrantzitsua da pertsonak beren inguruarekin lotzea, dauden baliabideekin laguntzea eta gizartean parte hartzea.

Hala, konpromisoa hartzen dugu gure gizartearen eta ekonomiaren etorkizun jasangarriari laguntzeko, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 2015ean sustatutako garapen jasangarriari buruzko 2030 Agendarekin bat eginez. Agendak garapen jasangarriko 17 helburu (GHJ) ditu; horien artean daude pobrezia ezabatzea, klima aldaketaren aurkako borroka, hezkuntza, emakumeen berdintasuna, ingurumenaren defentsa eta gure hirien diseinua.

Gizarte eremuan jarduten duen kooperatiba garen aldetik, gure kasuan eragin handiena duten sektoreetan parte hartzea eta laguntzea lehenetsi dugu, hala nola genero berdintasunean (5. helburua), desberdintasunen murrizketan (10. helburua), lan duinean eta hazkunde ekonomikoan (8. helburua) eta helburuak lortzeko aliantzetan (17. helburua). Horrek ez du esan nahi gainerako helburuak ahaztu behar ditugunik.

Jarraian, kooperatibak GJHei egiten dien ekarpena aztertuko dugu.

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK



09

ARRISKUEN KUDEAKETA

ARRISKUAREN KUDEAKETA

Agintzarik “Codigo Compliance” izeneko arriskua kudeatzeko eredu bat dauka, kooperatibaren jarduera guztietan eragina izan dezaketen arriskuak identifikatu, sailkatu eta baloratzeko, eta baita bakoitzaren kontrol eta erantzukizun mekanismoak ezartzeko ere.

Gogoratu behar da Agintzariaren jarduera inspiratzen eta gidatzen duten baloreen artean, erantzukizun soziala eta kudeaketaren gardentasuna daudela.

Gogorarazten da kodea betetzeko erantzukizuna kooperatibako kide bakoitzarena dela, eta legea urratzearen arriskuak aipatzen dira hainbat esparrutan: Administrazioarekiko harremanak eta lehiaketa publikoak, Ogasuna, diru-laguntzak, Gizarte segurantzak, lan-harremanak, kapital sozialaren kudeaketa, kudeaketa ekonomikoa, kudeaketa orokorra eta zorren ordainketa eta erantzukizun zibila.

Gainera, kontingentzia-plan espezializatu bat ere badugu, proiektu motaren arabera, eta kooperatibari neurri txikiagoan edo handiagoan eragin diezaioketen arrisku guztiak biltzen ditu. Ez da erraza jarduera betetzea zaildu dezaketen faktoreak identifikatzea, baina urteetan zehar hartutako esperientziak lagundu egiten digu horiek aurreikusi eta behar baino lehenago aurre egiten.

10

JASANGARRITASUNA

Jasangarritasuna

Agintzari talde gisa, sistema eta erakunde dinamiko den aldetik, aurrera jarraitzen du bere eginkizun sozialean, proiektu ezberdinak eskainiz eta inplementatuz, jada finkatuta dauden beste batzuk berrituz, horietako bakoitza egiten jakitearen isla izanik, ibilbidearen eta egokitzeko gaitasunaren isla izanik, bai beharretara, bai testuinguru sozialaren aldagaietara eta errealitatera.

Zentzu honetan kokatzen da 40 urteko ibilbidea, gizartearen alde lan egiten duen kolektibo gisa, eta hori, zalantzarik gabe, pizgarri eta pozgarri da. Agintzari osatzen dugun pertsona bakoitzak bere lana egiteko duen profesionaltasuna, ilusioa eta erantzukizuna ospatzen dugulako: gure proiektua.

Hasierako lan horren lekukoa hartzeak esan nahi du, gure balioetatik abiatuta Agintzariren identitatea elkarrekin eraikiz eta bultzatuz. Nortasun kooperatibo hori, batez ere, kudeaketa eredu batek markatzen du, parte hartzean eta lan on batean oinarritzen da, eta gure ezagutza eta esperientzia beste lurralde batzuetako profesionalekin partekatzerara eraman gaitu.

Agintzariren helburua ez da gizarte iraunkortasuna bakarrik, baita ekonomia eta gizarte errentagarritasuna lortzea ere. Horretarako, ekitaldian lortutako mozkinak berrinbetituko dira, lehen aipatutako printzipio eta balioekin bat etorritik.

KONPROMISOAK

Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da, eta gizartearekin konprometituta dago gizarte-premiei aurre egiteko eta gizarte-balioa sortzeko. Komunitatearen garapenean eta esku-hartze sozialaren eremu espezifikoan inplikaturako erakunde soziala garenez, proposamen berritzaileak martxan jartzen eta kalitatezko zerbitzuak kudeatzen lan egiten dugu, egoera zailean dauden pertsona eta kolektiboen behar sozialak gainditzera bideratuta.

Gure misioa gizarte lankidetzan konprometitutako eta inplikaturako pertsonengan oinarritutako proiektu bat garatzea da, talde lanean arituz, pertsonen, bezeroen, erakunde laguntzaileen eta gure inguruaren gogobetetzea etengabe bilatuz, egoera zailean dauden pertsona eta kolektiboen bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetuz. Gizarte bidezkoago, solidarioago eta kohesionatuago bat sustatzen laguntzen dugu.

Gure proiektu kooperatiboa, etorkizunera begirako begirada bat da, eta horrek gogoeta egiten jarraitzea garrantzitsua da, ez bakarrik barnekoari buruz, baita kanpokoari buruz ere, hirugarren sektoreko sareak eraikitzearen, idartzearen eta horietan parte hartzearen garrantziari buruz, sektore soziala sendotzeko helburuarekin.

Materialtasunaren azterketa

Agintzari materialtasun-azterketa egiten ari da, garatzen dituen jarduera sozialetan oinarrituta, horiek ebaluatzeko beharrak identifikatuz eta kooperatibarentzat esanguratsuenak direnak deskribatuz, jasagarritasunari buruzko nazioarteko (GRI) eta estatuko araudiaren eskakizunak betetzeko helburuarekin, Balantze Sozial honen edukiak zehazteko.

KANPO MAILAN


Alde batetik, kanpoko interes-taldeak identifikatu ditugu, gurekin elkarlanean ari direnak eta guretzat garrantzi handia dutenak materialtasun-mailan; izan ere, arduratsu eta konprometituta sentitzen gara gizartean gizarte-balioaren oinarriak finkatzeko. Hauek dira interes-taldeak:

GIZARTEA

Agintzarik autogestioan, parte-hartzean, esperientzian eta lidergoan oinarritzen du bere erakundea, bikaintasuna bilatzen duten pertsonen artean, kooperatibako kideak, zuzeneko hartzaileak eta eskaintzen dituen eta sustatzen dituen zerbitzuen bezeroak etengabe asebetez, bai eta gure jarduera garatzen dugun erakunde laguntzaileak, gizarte-eragileak eta komunitatea ere.


Era berean, hornitzaile estrategikoekiko harremana kudeatzen da, aliantzak indartzeko, lankidetzak eta eraginkortasun-ingurune batean, informazioa partekatuz, estrategiak lerrotuz, etengabeko hobekuntza bilatuz eta berrikuntza sustatuz. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta garapen jasangarriaren balioak partekatzen dituzten erakundeak, besteak beste.

Guztira, Agintzarik 80 zerbitzu eta proiektu inguru eskaintzen dizkio gizarteari Euskadi osoan, gehienbat Bizkaian. Zerbitzu eta proiektu horiei buruzko informazioa kooperatibaren webgunean aurki daiteke.



KANPO MAILAN

2024an artatutako pertsonak



SAREAK/ALIANTZAK Gizartearen garapena

Agintzari, Gizarte Ekimeneko Kooperatiba den aldetik, komunitatearen garapenean inplikaturik dagoen gizarte enpresa bat da, proposamen berritzaileak martxan jartzen eta kalitatezko zerbitzuak kudeatzen lan egiten duena, zailtasun egoeran dauden pertsona eta kolektiboaren behar sozialak gainditzera bideratuta.

2024an zehar, Agintzarik 47.017 pertsona artatu zituen. Horietatik 8.790 mutiko eta 8.697 neskato, 21 nerabe, hau da, 17.508 adingabe guztira (totalaren %37,2). Helduei dagokienez, 9.333 gizonezko, 20.171 emakumezko; guztira 29.509 heldu artatu ziren (guztizkoaren %62,8).

NIVEL EXTERNO

SAREAK/ALIANTZAK

Giza baliabideak

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
Entitateak kontratatutako pertsonen kopuru osoa	84	407
Kontratu mugagabea duten pertsonen proportzioa	82,14%	78,13%
